

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Morrás kontseilariak Elizondoko Foruzaingoaren komisaria berria bisitatu du

*Lan-bilera bat egin du komisaria horretako eta Oronozko (Baztan) eskualdeko suhiltzaile-etxeke arduradunekin*

Jueves, 14 de marzo de 2013

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás-ek Elizondoko Foruzaingoaren komisaria berriko obrak bisitatu ditu aste honetan, amaitzeaz dauden obrak.

Bisita hori egin da Morrás kontseilariak, Barneko zuzendari nagusi Patxi Fernándezekin batera, Elizondoko Foruzaingoaren komisario Iñaki Cíarekin eta Oronozko (Baztan) eskualdeko suhiltzaile-etxeke sarjentu Javier Ayarrarekin egindako lan-bileraren barnean.

Elizondoko Foruzaingoaren komisaria berriak udalerriri horretako Santiagoko etorbidean dauden egungo instalazioak ordeztuko ditu, eta 26.000 biztanleko 27 udalerriri emango die zerbitzua.

Paraje Erabeta eta Menditurri kaleen artean dago, Baztango Udalak utzitako lursail batean eta 4.582,87 metro koadroko azalera du. Eraikinak 1.038,30 metro erabilgarri ditu; metro horietatik 461,90 garajeari dagozkio, 122,20 lan-gelei, 49,30 herritarrei arreta emateko bulegoari eta gainerakoa beste polizia-gela batzuei.

### Elizondoko komisaria eta Oronozko suhiltzaile-etxea

2012an, 25 agente dituen Elizondoko komisariak delituak prebenitzeko berriazko kanpainak garatu zituen saltoki eta enpresekin. Gainera, baserrietan bizi diren adinekoen segurtasuna bermatzeko ekimenak ere egin zituen, bai eta eskola-inguruneetan segurtasun-uhalak erabiltzeko ekimenak ere.



Morrás kontseilaria (eskuinean) Elizondoko Foruzaingoaren komisaria berriko sarbidean.



Elizondoko Foruzaingoaren komisaria berriko heliportuaren ikuspegia.

Elizondoko komisariako agenteek 2.084 ordu patruilatu zituzten oinez iaz eta 7.049 aldiz eman zieten herritarrei arreta. Halaber, 426 salaketa penal jaso zituen, 100 pertsonari trafiko-delituak egotzi zieten eta 479 aldiz droga konfiskatu zuten.

Aldiz, Oronozko (Baztan) eskualdeko suhiltzaile-etxeak 674 esku-hartze egin zituen guztira, 2012an; otsaila eta martxoan izan ziren jarduera handieneko hilabeteak larreak era kontrolatuan erretzeko kanpaina dela eta, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuarekin, udalekin eta zonaldeko abeltzainekin batera egiten dutena.

Landaretzaren suteei dagokienez, iaz eskualdeko suhiltzaile-etxe horretako suhiltzaileek 514 hektareatan izandako sutea itzaltzeko lanetan parte hartu zuten, hektarea horien % 99 basokoa.